



18. zkia

TOKIKO AGENDA 21en aldizkaria / 2010eko maiatza

## Jasangarritasuna helburu duten proiektuak

Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailek 2009an eta 2010ean diruz lagunduko dituzten proiektuak ezagutzera eman dituzte. Krisi egoera dela eta diru-laguntzak murriztu diren arren, Arratiako Udalek egindako eskaera gehienak onartu dituzte.

Arratiako Udalen Mankomunitateko hamabost egitasmok jasoko dute laguntza hori. Hain zuzen, proiektu horiek efizientzia energetikoa, mugikortasun jasangarria, airearen kalitatea, hondakinen kudeaketa eta ingurumen sentzibilizazioa hobetzeko helburua dute.

Arratiako Udalen Mankomunitateak, esate baterako, bi proiektu garatzeko laguntza jasoko du: Eskolako Agenda 21 eta hiri-hondakinak albo batetik jasotzen dituen kamioi berria erosteko.

Udalek ere jasoko dituzte instituzioen laguntza horiek: Arantzazuko Udalak, Oilakorben aisialdirako gunea urbanizatzeko; Areatzakoak, udal igerilekuan aldikako aparkalekua egiteko eta hiriko argiteriaren efizientzia energetikoa hobetzeko; Arteakoak, hiriguneko taxi zerbitzua mantentzeko eta hiriko argiteriaren efizientzia energetikoa hobetzeko; Dimakoak, airearen kalitatea hobetuko duen

*Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak 545.000 euro bideratzeko dituzte Arratiako Udalen Mankomunitatera, aurrekontu osoaren (825.000 euro) % 70*

kale-garbiketa sistema mantentzeko; Igorrekoak, Oinezbusa proiektua bideratzeko eta landa eremuko garraio publikoa abian jartzeko eta azkenik, Zeanurikoak, eskolarako bidea hobet-

zeko eta Gurutzalde auzoko argiteria publikoa hobetzeko.

### Energiaren Euskal Erakundea

Bestalde, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) beste hiru proiektu bideratzeko diru-laguntzak onartu ditu. Bedian, esate baterako, udal eraikinen eta argiteria publikoaren kontsumoa aztertzeke auditoria egingo dute. Igorren, bestalde, udal eraikinen azterketa egiteko laguntza bideratuko du.

### AURKIBIDEA

- Ikastetxean kontsumo jasangarriaren alde** 02
- Mankomunitateko presidenteari elkarrizketa** 03
- Etxez etxeko hondakin bilketako datuak** 04
- Egoki birziklatzeko aholkuak** 06
- Hondakinak murrizteko aukera aproposak** 07



Informazio gehiago: [www.arratia21.org](http://www.arratia21.org)

# Editoriala | Guztion ahalegina ezinbestekoa da

Larregi, egungo gizarte ereduak josten duen musikaren baitan dantza egitendugu. Zenbaitetan, kontzienteki; gehiegitan, ohartu gabe. Eta dantza egiteko estilo horrek zenbait ondorio uzten ditu. Hondakinen aferan, esate baterako, merkatal-gune handien orkestrak jotzen dituen *pasodobleak* dantzatzera ohitu gara, etxeko zaborontzia bilgarriz betetzen dugun bitartean.

Horrela egiaztatzen dute etxeetako zabor bilketa datuek. Arratiako

biztanle bakoitzak, esate baterako, joan den urtean 448,64 kilo zabor sortu genuen, Bizkaiko biztanleen bataz bestekoaren langa (379,60 kilo) gaindituz. Eta zabortegiak gainezka ditugun honetan, joera horrek ezin du luzaroan iraun, egoera irauli beharra dago damutzen hasi aurretik.

Prozesu horretan guztion parte-hartzea eta ahalegina ezinbestekoa da. Egoeraz jabetuta, Arratiako Udalen Mankomunitatea gidari lana egiten hasi da eskura dituen baliabideak

(ekonomikoak, estrukturalak, giza-baliabideak, eta abar) herritarren zerbitzura jarritz. Baina esfortzu hori alferrikakoa da herritarrok beste aldera begiratzen badugu. Uste baino errazagoa da, eguneroko ohitura aldaketa txikiak nahikoak izan daitezke arestian aipatu ditugun datu horiek hobetzeko.

Gure esku dago etorkizuneko belaunaldiari gizarte osasungarriagoa eskaintzea. Prest zaudete zuen ohiturak aldatzeko?

## Ikastetxeak kontsumo jasangarriaren alde



Arratiako Udalen Mankomunitateko ikastetxeak Eskolako Agenda 21 egitasmoaren barruan *Kontsumo iraunkorra: energia gaia* aztertzen ari dira 2009-2010 ikasturtean. Programa horren baitan hainbat ekintza gauzatu dituzte. Hona hemen zenbait adibide:

### Ugarana HH-LH

Dimako argiteria mota aztertu dute, hain zuzen Ugarana eta Ibarra kaleetakoa eta Zubimakurre eta San Valentin auzoetakoa. Ibilaldiarekin argiteria kutsakorrak eta ez kutsakorrak bereizten ikasi dute. Euskararen Egunean, berriz, etxeko jostailuak elkartrukatzeko *Merkatu Txikia* antolatu zuten.

### Inazio Zubizarreta HH-LH

Igorreko ikasleek *Kontsumo arduratsuari* buruzko tailer ibiltarian parte hartu dute. *Ontziak eta euren erabilera*

izenekoan, birziklatzeak duen garrantziaz hitz egin dute eta higatutako materialekin jostailuak egin dituzte. *Publizitatearen analisia* izenekoaan iragarkiak aztertu eta energiaren erabilera jasangarriaren garrantziaz jabetu dira.

Bestalde, aipagarria da ikastetxean EKOBERDE taldea egiten ari den lana. Besteak beste, hondakinak modu egokian sailkatzen diren, paperaren berrerrabilpena edo argiak behar bezala amatatzen diren aztertzen dute.

### Arratiako Institutua

Institutuko ikasleak ere hainbat ekimen antolatu dituzte: *Habitat egunean Zain dezagun natura* leloarekin kartelak itsatsi dituzte hizkuntza ezberdinetan; garaian garaiko fruituen kontsumoa bultzatzeko mandarinak eta platanoak banatu dituzte eta, kontsumo arduratsua sustatzeko *Azoka berdea* antolatu herriko produktuak saltzeko. Amaitzeko, martxoaren 6an Arratiako eta Igorreko Mugikortasun Planak aurkeztu zirela nabarmendu nahi dugu.



# Laburrak

## Ekintza Plan berriak Areatzan eta Igorren

Areatza eta Igorreko Udalek Tokiko Agenda 21eko lehenengo Ekintza Planak berrikusi eta berriak zehaztu nahian dabilta.

Areatzako Udalak berria zehaztu du dagoeneko. Plana egokitzeko beharra ikusi du, “egun bizi dugun egoerara eta etorkizunera egokitu behar duelako”. Bigarren Ekintza Plana 2010-2020 urteen artean garatuko da eta, besteak beste, mugikortasun estrategia berria, Klima Aldaketaren aurkako borroka, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna edota euskara hartzen ditu aintzat.

Igorreko Udala, berriz, Ekintza Plan berria diseinatzen dabil. Herritarrekin batera ingurumen diagnosis, ekonomikoa eta soziala aztertzeke borondatea azaldu du. Horretarako hainbat Foro antolatu ditu Kultur Etxean: lehenengoa maiatzaren 31n izango da eta ekainean beste lau iragarri dituzte (1,2, 7 eta 8). Guztiak 19:30ean hasiko dira.

## Sendagaiak hobeto erabiltzeko laguntza

Arratiako Udalen Mankomunitateak eta Bizkaiko Farmazialarien Elkargo Ofizialak lankidetzeta hitzarmena sinatu dute Mankomunitateko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua hobetzeko.

Programak gaixoei sendagaiak ezberdintzen eta nola hartu behar dituzten azaltzen die: tratamenduak nola bete edota etxez etxeko laguntzaileei eta zaintzaileei sendagaiak eskuratzeko, kontserbatzeko eta emateko erraztasunak ematen dizkie.

Aitor Sokarrieta, Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea

“Hondakinak gutxitzeko baliabideak jarriko ditugu, baina herritarren inplikazioa beharrezkoa da”

**Modu laburrean bada ere, zein dira Mankomunitateak dituen ardatz estrategikoak Hondakin kudeaketari dagokionez.**

Momentuz ez daukagu plan estrategikorik. Orain ikerketa bat egiten hastekoak gara eskuartean dauzkagun datuen arabera geroz eta gutxiago birziklatzen delako. Hortaz, helburu batzuk markatu eta horiek betetzen ahalegindu beharko dugu.

**Nola, ordea?**

Baliabideak jarriz eta herritarrek sentsibilizatuz. Lehenengo zeregina instituzioena izango da, norabide zuzena definituz. Herritarrek inplikatzeko izango da bigarren zeregina.

**Herritarrek sentsibilizatzeko zein da zuen apustua?**

Urtero egiten ditugu sentsibilizazio kanpainak. Baina iruditzen zait, eta datuak mahai gainean ditugu, herritarren jarrera nahiko apala izaten ari dela.

**Azken urteotan birziklatzeak behera egin du Mankomunitatean.**

Gure lana datu negatibo horiek iraultzeko baliabideak jartzea izango da. Helburuak zehaztu beharko ditugu eta, lehenengoa, birziklatzeak gora egitea izango da.

**Gaztelerazko 3Rak (birziklatu, berrerabili eta gutxitu) izan daiteke helburu hori lortzeko bidea?**

Berrerabiltzea eta birziklatzea guztion eskura daude, ados. Baina gutxitzearena iruditzen zait enpresa handiei ezarri beharreko baldintza izan behar duela. Ez da posible erosketak egitera joan eta produktu horiek bilgarriz “lepo” aurkitzea. Europa edo Estatu mailan norbaitek neurriak hartu beharko lituzke, ez zait iruditzen herritarroi zuzenean dagokigun zerbait denik.



*“Enpresa bat kontratatu dugu zabor bilketa zerbitzuaren azterketa egiteko. Bere zeregina izango da egungo sistema aztertzea eta sistema hori hobetzeko proposamenak aurkeztea. Ekainerako amaituko dute.”*

**Zentzu horretan nola baloratzen duzu Eskolako Agenda 21en birtartez egiten ari diren lana?**

Gaztetzuekin egiten den lana oso garrantzitsua da, etorkizuneko belaunaldiak hezten ditugulako eta hondakin kudeaketa egokia bermatzen dugulako. Helduon ohiturak aldatzea zailagoa da.

**Etorkizunari begira, Mankomunitatean epe laburrean zein erabaki hartu behar dituzue hondakin kudeaketa hobetzeko.**

Bi urrats nabarmenduko nituzke. Batetik, zaborra biltzeko kamioi berria erosiko dugu. Kamioiak zaborra alde batetik jasotzen du, eta langile bakar bat nahikoa izango da kamioia gidatu eta zaborra jasotzeko. Orain arte hiru behar izaten genituen.

**Zein da bestea?**

Enpresa bat kontratatu dugu zabor bilketa zerbitzuaren azterketa egiteko. Bere zeregina izango da egungo sistema aztertzea eta sistema hori hobetzeko proposamenak aurkeztea. Gure aurreikuspenen arabera ekainerako amaituko dute.

**Eta etorkizun luzeago batean, zein erronka dituzue?**

Birziklatze datuak behera egin dutela ikusita, argi dago zerbait txarto egiten ari garela. Kopuru horiek hobetzen joatea da gure erronka.

# Hondakinen bilketa selektiboa Arratiak

Arratiako Udalen Mankomunitateak 90. hamarkadan jarri zuen martxan etxez etxeko hondakin bilketa zerbitzua. Orduz gozotik, urtetik urtera zerbitzua hobetzen joan da eta momentu honetan Mankomunitateak zortzi hondakin mota jasotzen ditu, bakoitzarentzat propio egokitutako

bilketa zerbitzuaren bidez. Mankomunitateko arduradunek 2003-2009 sei urtekoan zerbitzuak izan duen bilakaeraren irakurketa egin dute. Datuak bere gordinena interpretatzea ez da erraza, zenbakiak ordea, ez dute gezurrik esaten eta Arratiako Mankomunitatean jasotzen den hondaki-

nen batz bestekoa Bizkaikoa baino baxuagoa den neurrian, datozen urteetan gutxienez datu horiek berdintzeko ahalegina egin behar dutela azpimarratu dute Mankomunitatetik.

Jarraian, zenbait grafiko eta ondorio ikusteko aukera izango duzue.

## Etxez etxeko hondakinen bilketa 2003-2009 (kg)

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Sortutako hondakinak	5.256.603	5.512.767	5.405.885	5.905.625	6.178.584	6.257.691	6.027.152
Jasotako hondakinak	4.297.577	4.422.580	4.195.434	4.574.610	4.747.772	4.768.480	4.678.996
<b>Bilketa selektiboa</b>	959.026	1.090.187	1.210.451	1.331.015	1.430.812	1.489.211	1.348.156
<b>Tamaina handikoak</b>	160.730	181.300	194.910	179.010	313.920	269.610	131.090
<b>Papera/kartoia</b>	409.574	491.600	521.512	593.698	602.190	656.890	591.229
<b>Beira</b>	278.513	282.897	328.297	361.310	313.946	348.312	323.192
<b>Ontziak</b>	104.409	127.345	153.622	186.578	191.041	209.795	245.780
<b>Ehun-gaiak</b>	-	-	-	-	-	-	41.810
<b>Pilak</b>	2.840	780	1.800	1.192	1.003	558	1.360
<b>Linea marroia</b>	2.960	5.980	8.640	7.717	6.920	2.360	3.020
<b>Etxeko olioak</b>	-	285	1.670	1.510	1.792	1.686	10.675
Arratia, bilketa selektiboa %	18,24	19,77	22,39	22,53	23,15	23,79	22,36
Bizkaia, bilketa selektiboa %	19,83	20,01	21,13	21,94	23,44	23,93	24,41
Arratiako biztanleria	12.167	12.207	12.388	12.496	12.840	13.229	13.434
ARRATIA, sortutako hondakinak kg/biz/urte	423,45	451,60	436,38	472,60	481,19	473,02	448,64
BIZKAIA, sortutako hondakinak kg/biz/urte	394,20	397,85	397,85	397,85	397,85	390,55	379,60



### Beheranzko joera irauli behar da

Biztanle bakoitzak urtean sortzen duen hondakin kopuruak gorazko joera izan du 2003 2007 urteen artean. Hortik aurrera, joera kontrakoa izan da. 2008an jaitsi egin zen, gutxi baina jaitsi, eta, 2009an beherakada nabarmena izan zen. Arrazoiak nagusiak bi dira: krisi ekonomikoa eta herritarren sentsibilizazioaren areagotzea. Egungo datuen arabera arratiarrek urteko sortzen duten zabor kopuruaren batz bestekoa (448,64 kilo/biz./urte) Bizkaiko biztanleena baino altuagoa da (379,60 kilo/biz./urte).

Hondakin mota ezberdinak gaika jasotzeko zerbitzuak areagotu arren, 2009tik

# herritarren inplikazioa behar du

aurrera kopuruak beherakada nabarmentzen izan du, % 22,21eraino jaitsiz (2005eko datuetara itzuli da). 2005etik 2008ra bitartean zerbitzuak goranzko joera izan zuela kontuan hartzen badugu, % 23,77ra iritsiz, datu kezagarria da, batez ere Bizkaian goranzko joera gailentzen ari den bitartean Arratian norabidea kontrakoa delako.

## Ondorioak gaika

**Papera eta kartoia.** Azken urteetako gorazko joerak etena izan du 2009an. Azken urte horretan paper eta kartoi gutxiago jaso da.

**Beira.** 2007an eta 2009an jasotako kopuruak apur bat jaitsi arren, kopurua nahikoa egonkor mantentzen da.

**Ontziak.** Urtetik urtera goranzko joera mantentzen duen hondakin frakzio bakarra da.


**Ehun-gaiak.** Zerbitzua 2009an abiatu zen. Herritarrek oso harrera ona egin diote, hilero-hilero 4.000 kilo jasotzera iritsiz.

**Tamaina handikoak.** 2008an behar-rakada izugarria ezagutu du. Horren


eragina, behar bada, 2007ko igoera ezohikoan aurki daiteke. 2009an, krisiaren eraginez edo, beherazko joera horrek jarraitu du. Egun, 2005 eta 2006 urteko mailan dago.

**Etxeko landare-olioa.** 2009an zerbitzua hobetu eta eduki-ontziak jarri dira herriko kaleetan. Datuak argitzen duten bezala, agintariek bete betean asmatu dute, jasotako olio kopurua zazpi aldiz biderkatu baita: 2008an 1.600 kg. jasotzetik, 2009an 10.675 kg. jasotzera pasa dira, hasierako kopurua zazpi aldiz biderkatuz.

## Etxez etxeko hondakin bilketa zerbitzua



● Tamaina handikoak ● Papera-kartoia  
● Beira ● Ontziak ● Ehun-gaiak



● Pilak ● Linea marroia  
● Etxeko landare-olioa

## Arratia-Bizkaia konparaketa

Arratian eta Bizkaian jasotako papera-kartoi, ontzi, ehun-gai, tamaina handiko eta etxeko landare olio maila beretsua da, zenbait kasutan Arratian jasotakoa Bizkaian jasotakoa gaindituz. Beira, pila eta linea marroiko etxetresnen kasuan (TV, eta abar) Arratian gutxiago jasotzen da. Gaikako hondakin bilketa kopuruaren batz bestekoa ere Arratian (% 22,36) Bizkaian baino (% 24,41) baxuagoa da.





# EGOKI BIRZIKLATZEKO AHOLKUAK

Zein eduki-ontzitarra bota behar dut sukaldeko papera? Eta pitzadura duen kristalezko edalontzia? Halako galderak sarritan errepikatzen dira zaborra birziklatzen duten herritarren artean eta, gehienguan, erantzunik ez da izaten. Zalantza horiek argitu nahian, hondakinak egoki birziklatzeko aholkuak aurkituko dituzue jarraian.



## HONDAKIN ORGANIKOEN EDUKI-ONTZIAN 1

### BAI

- Janari-hondarrak • Sukaldeko papera
- Fruitu lehorren, arrautzen eta itsaskien oskolak
- Kortxoazko tapoiak • Lur eta errauts hondar txikiak

Gomendioa: Bota hondakinak behar den moduan eta itxitako poltsetan eta beharrezko ordutegian.

### EZ

- Arropa • Botikak • Pilak
- Olio, zura, pinturak, barnizak, aerosolak, zerak...
- Garbiketako produktuak

## EDUKI-ONTZI BERDEAN 2

### BAI

- Beirazko edozein koloretako botilak
- Beirazko poteak • Kontserba-ontziak
- Kosmetika eta lurrungintzako poteak

Gomendioa: Eduki-ontzira bota aurretik kendu beirazko ontzien tapak.

### EZ

- Kristala (autoetakoa, bonbilak, ispiluak, leihoetakoak, etab.). Horiek guztiak Garbigunera eraman behar dira.
- Edalontziak

## EDUKI-ONTZI URDINEAN 3

### BAI

- Egunkariak eta aldizkariak • Publizitatea
- Kartoizko kutxak eta arrautza ontziak
- Paperezko poltsak

Gomendioa: Eduki-ontzietara bota aurretik tolestu kartoia.

### EZ

- Brikak • Pixoihalak
- Paper zikinak, argizari paperak, metalizatuak edo plastifikatuak

## EDUKI-ONTZI HORIAN 4

### BAI

- Metalezko ontziak (edarien latak, kontserba-latak, aluminiozko platerak...) • Brikak
- Janarien plastikozko ontziak
- Garbitasunerako eta garbiketarako ontziak
- Plastikozko eta aluminiozko poltsak eta bilgarriak

Gomendioa: Eduki-ontzira bota aurretik ontziak garbitu eta tolestu.

### EZ

- Plastikozko jostailuak
- Plastikozko etxe-tresna elektrikoak • Biberoiak
- Gomazko eskularruak • Plastikozko baldeak

## PILEN EDUKI-ONTZIAN 5

### BAI

- Pila arruntak • Botoi-pilak
- Telefono mugikorren bateriak

Gomendioa: Pila mota bakoitza dagokion lekutik bota.

### EZ

- Beste edozein hondakin

## LANDARE-OLIO EDUKI-ONTZIAN 6

### BAI

- Etxean erabilitako landare-olioa

Gomendioa: Olio plastikoazko eduki-ontzietan gorde eta ondo itxita daudela ziurtatu.

### EZ

- Olio minerala • Autoetako olioak

## ARROPA ERABILIAREN EDUKI-ONTZIAN 7

### BAI

- Arropa eta oinetakoak
- Mantak, izarak, eskuoihalak, zapiak...
- Osagarriak: poltsak, karterak, gerrikoak...

Gomendioa: Arropa erabilia poltsa itxietan bota.

### EZ

- Alfonbrak

# Egoera guztiak dira aproposak hondakinak murrizteko

Egunerokotasunean behin eta berriz errepikatzen ditugun egoera guztiak dira aproposak hondakinak murrizteko; lantokian, ikastetxean, etxean, aisialdian... Jarrera edo ohitura kontua izan liteke, edo agian, informazio falta. Edo hiru faktoreen pilaketa. Informazio falta aitzakia moduan jartzen dutenentzat, hona hemen esparru ezberdinetan hondakinak murrizteko hainbat aholku.



## ETXEAN

- Kontsumo baxuko bonbillak erabili.
- Produktu jasagarriak aukeratu.
- Objektuak bota aurretik, bigarren erabilera ematen dieten elkartei banatu.
- Dutarako gelaren orde xaboia erabili.
- Hondakin ekologiko eta biodegradagarriekin konposta egin.
- Produktuak bota aurretik, konpon daitezkeen ala ez ziurtatu.
- Arroparik ez bota, bigarren erabilera emango dieten pertsonen edo elkarten artean banatu.
- Berrerabil daitezkeen pixa-oihalak erosi.

## LANTOKIAN

- Posta elektronikoa lehenetsi; faxa eta posta bidalketa ahalik eta gutxien erabili.
- Beharrezkoak diren orrialdeak soilik inprimatu eta orrialdeen bi aldeak erabili.
- Plastikozko edalontziak ordezkatzeko etxetik katiluak eraman.
- Bulegoko materiala erosterakoan, berrerabil daitezkeenak, material birziklatuarekin egindakoak eta Europako eko-etiketa txartela daukatenak aukeratu.

## IKASTETXEAN

- Hamaiketako tuperretan eraman eta, ura, kantinploran.
- Eskolako materiala erosi aurretik, ziurtatu aurreko ikasturtekoa amaitu dela. Erosketak egiteko irizpide gisa, berriz, ingurumena errespetatzen duten materialak lehenetsi.
- Orrialdeen bi aurpegiak erabili.

## OTORDUETAN

- Janari freskoa erosi; zure dieta osasungarriagoa izango da eta hondakin gutxiago sortuko dituzu.

- Iraungitze-data kontuan izan; produktu horiek ez iraungitzeko.
- Otorduetan iturriko ura edan.
- Etxetik kanpo egiten dituzun otorduetan berrerabil daitezkeen ontziak erabili.

## AISIALDIAN

- Etxean pilarik ez erabili, energia elektriko sarea erabili. Pilar erabiltzekotan, kargatzen diren pilar erabili.
- Behar beharrezkoak diren produktuak soilik erosi.
- Opariak egin behar badituzu, kontuan izan kontzertu edo antzerkirako sarrerak, abonamenduak, ikastaroetako izen-emateak, eta abar.

## EROSKETETAN

- Eko-etiketa daukaten produktuak erosi.
- Erabilera bakarreko produkturik ez erosi.
- Ahalik eta bilgarri gutxien dituzten produktuak erosi.
- Ahalegindu ontziratutako gabeko produktuak erosten.
- Erosketak egiteko berrerabil daitezkeen poltsak erabili.
- Berrito bete daitezkeen produktuak erosi.

## BRIKOLAJEAN

- Noizean behin behar duzun materiala lagun bati eskatu edo alokatu.
- Sortutako hondakin, arriskutsuak barne, modu egokian kudeatu.

## JARDINEAN

- Tarteka erabiltzen dituzun erremintak bizilagunari eskatu edo alokatu.
- Nekazaritza ekologikoarekin bateragarriak diren ongarri naturalak erosi.
- Aukera izanez gero, konposta egin.

# Hondakinak birziklatzeko ohitura ba al daukazu?

Kalera atera gara Mankomunitateko bizilagunen hondakinak birziklatzeko ohiturarik ba ote duten ezagutzeko. Hona hemen jasotako zenbait erantzun.



**Esti Atutxa**  
*Areatza*

Nire inguruan jendea ohitura hori hartzen ari da, baina gure etxean ez dugu birziklatzen. Arrazoiak aipatzen hasita, ez daukat oso argi, baina agian erosotasunagatik izan daiteke.



**Arkaitz Arana**  
*Zeanuri*

Baserrian bizi naiz, eta gure inguruan ez daukagu eduki-ontziririk. Ez da eroso, baina esfortzua egiten hasi gara. Positiboa iruditzen zait hondakinei bigarren erabilera ematea.



**Pedro Ureta**  
*Arantzazu*

Etxean zabor guztia bereizten dugu; Mankomunitatea zerbitzua ematen hasi zenean hasi ginen gu ere. Egin beharrekoa dela uste dut eta hemen jendeak ohitura nahiko barneratua duela.



**Iratxe Lezartza**  
*Dima*

Plastikoa, papera, kristala eta zabor organikoa bereizten ditugu. Mentalitate ekologista hori badugu; mundua guztiona da eta zaindu egin behar da. Hala ere, guztion inplikazioa behar da.

## Juan Ángel Esparta, hondakin bilketa zerbitzuko langilea

“Hitzez ekologista asko dago, baina ekintzez ez dute jarrera hori azaltzen”

**Zure lanbideagatik ondo ezagutuko dituzu Mankomunitateko biztanleen ohiturak.**

Ekologista izate hori oso modan dago, oso kontzientziatuta gaude. Guztiok gaude prest ahotsa altxa eta ekologistak garela aldarrikatzeko; baina hitzez, ekintzez ez dugu jarrera hori azaltzen.

**Oraindik asko falta da herritarrak hondakinak modu egokian sailkatzeko?**

Herritarrak kontzientziatuagoak egongo bagina, sortzen dugun zaborra erdira murriztuko genuke. Esate baterako, jasotzen dugun zaborraren % 20-30 inguru kartoia da. Nola da posible papera eta kartoia jasotzeko eduki-ontziak aldamenean edukita, jendeak kartoia zabor organikoa jasotzeko eduki-ontzietara botatzea?

**Eta hori zergatik gertatzen da, informazio ala kontzientzia faltagatik?**

Mankomunitateak urtero ateratzen ditu informazio orriak, informazio falta ez da arrazoa. Faktore ezberdinen metaketa dela esango nuke: kontzientziazio eta edukazio falta, Udalek ere zaborren arautegia ez daukate oso finkatuta...

**Adinaren arabera ezberdintasunak antzematen dituzu?**

Nabariak dira. Gaztetxoek oso argi daukate hondakin bakoitza non utzi behar duten, oso lan ona egiten ari

*“Arratiako Udaleko Mankomunitateko herritarrak kontzientziatuagoak egongo bagina, sortzen dugun zaborra erdira murriztuko genuke”*



dira EA21en. Helduek, berriz, zalantza gehiago dituzte.

**Amaitzeko, bitxikeria asko topatzen dituzue eduki-ontzietan?**

Katakumeak, trafikoko seinaleak, koltxoiak, kotxeetako paratxoekak, kamioietako gurpilak... denetarik. Arautu beharra dago eta, zergatik ez, zigorrak jartzen hasi.